

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

16345 2/2020 Lege Organikoa, abenduaren 16koa, Zigor Kodea aldatzekoa, judizialki ezgaituta dauden desgaituen esterilizazio behartua edo baimendu gabea ezabatzeko.

FELIPE VI.a
ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.
Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa 2006an onartu zen. Espainiak, berretsi, eta 2008an jarri zuen indarrean. Konbentzioaren artikuluetan, zenbait artikulua espezifiko jasotzen dira desgaitasuna duten pertsonen familia bat osatzeko, etxe bat edukitzeko, guraso izateko eta harreman pertsonalak izateko dituzten eskubideei buruz. Zehazki, 23.1. artikulua honako hau dio:

«23. artikulua. *Etxebizitza eta familia errespetatzea*

1. Estatu alderdiek neurri eragingarri eta egokiak hartuko dituzte pertsona desgaituen aurkako bereizkeria amaitzeko, ezkontzarekin, familiarekin, gurasotasunarekin eta harreman pertsonalekin zerikusia duten gai guztietan, eta pertsona desgaituak gainerako baldintza berberetan izan daitezela lortzeko, honako hauek ziurtatzeko helburuarekin:

a) Ezkontza-adinean dauden pertsona desgaitu guztiei aitortzea beren adostasun aske eta osoan oinarrituta ezkondu eta familia osatzeko eskubidea.

b) Errespetatzea pertsona desgaituen eskubidea, askatasunez eta modu arduratsuan erabakitzeke izan nahi duten seme-alaben kopurua eta jaiotza batetik bestera igaro beharreko denbora, eta eskura izateko euren adinerako informazio eta ugalketari nahiz familia-plangintzari buruzko hezkuntza egokiak, eta eskubide horien egikaritza ahalbidetzen dieten baliabideak eskaintzea.

c) Pertsona desgaituek, haurrak barne, euren ugalkortasunari eustea, gainerako baldintza berberetan.»

Gure herrian, ordea, artikulua honetan jasotakoak ez du erabateko indarraldirik. Espainian, oraindik ere, «esterilizazio behartua edo baimenik gabea» egiten zaie desgaitasuna duten edo judizialki ezgaituta dauden pertsonen. Horrela baimentzen du gure Zigor Kodeak 156. artikuluan:

«156. artikulua.

Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, adostasuna balio osoz, askatasunez, kontzientziar eta espresuki ematen bada, erantzukizun penaletik salbuesten du, legearen arabera egindako organo-transplanteetan eta adituek egindako esterilizatzeko eta sexu-aldaketako kirurgiako ebakuntzetan, salbu eta adostasuna akatsen bidez edo prezioaren nahiz sariaren bidez lortu denean, edo adostasuna eman duena adingabea denean edo adostasuna emateko inolako gaitasunik ez duena denean; kasu horietan, ez da baliozkoa izango haiek edo euren legezko ordezkariak emandako adostasuna.

Ez da zigortzekoa izango organo judicial batek agindutako esterilizazioa egitea, baldin eta esterilizatzen den pertsonak ezin badu eta ezin izango badu inola ere eman aurreko lerrokadan adierazitako adostasuna; betiere, ezohiko kasuak badira, babestutako ondasun juridikoetan gatazka larria badago, eta xedea ukituaren interes nagusia babestea bada. Guztia ere, legeria zibilean xedatutakoaren arabera.»

Giza eskubideen ikuspuntu hertsitik, anomalia larria da aukera horrek zuzenbide nazionalean irautea, kontuan hartuta hamarkada bat baino gehiago igaro dela desgaitasuna duten pertsonen nazioarteko ituna indarrean sartu zenetik. Gure Estatuak desgaitasuna duten pertsonen eskubideak mitoen bidez urratzen jarraitzeak («familiaren ongia», «desgaitasuna duten emakumeek ama izateko ezgaitasuna» edo «euren onerako») zuzenean erasotzen dio Konbentzioaren 23. artikuluari.

Azpmarratu behar da Konbentzioak q) apartatuan aitortzen duela emakume eta neskatila desgaituek arrisku handiagoa dutela maizago jasateko, etxebizitzan nahiz etxebizitzatik kanpo, indarkeria, lesioak edo abusua, abandonua edo zabarkeriazko tratua, tratu txarrak edo esplotazioa.

Gainera, 6. artikuluan, desgaitasuna duten emakume eta neskatilei buruzkoan, azpmarratzen du estatu alderdiek aitortzen dutela emakume eta neskatila desgaituek bereizkeria-mota anitz jasan dezaketela eta, horrenbestez, neurriak hartuko dituztela ziurtatzeko halakoek giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak oso-osoan eta berdintasun-baldintzetan baliatu ahal izatea.

Nazioarteko iritzi eta akordio horiek egon arren, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Komiteak, 1. ohar orokorrean, berresten du desgaitasuna duten emakumeek behartutako esterilizazio-tasa handiak dituztela eta, askotan, ukatzen zaiela euren ugalketa-osasunaren kontrola eta erabakiak hartzea, sexua onartzeko gai ez direla pentsatuta.

Desgaitasuna duten emakumeei eta neskatilei buruzko 3. ohar orokorrean adierazten denez, indarkeria-, esplotazio- eta abusu-modu batzuk tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarritzat har daitezke, bai eta giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat itunen urraketatzat ere. Horien artean, hauek aipa daitezke: inposatutako edo nahi gabeko haurdunaldia edo esterilizazio behartua; askatasunez eta informatuta emandako baimenik gabe egindako prozedura eta esku-hartze mediko guztiak, kontrazepzioarekin eta abortuarekin lotutakoak barne.

Kontrazepzioak eta behartutako esterilizazioak ere eragin dezakete sexu-indarkeria, nahiz eta haurdunaldirik ez gertatu, bereziki emakume hauen kasuan: desgaitasun psikosoziala edo intelektuala dutenak, zentro psikiatrikoetan eta beste erakunde batzuetan barneratuta daudenak eta askatasunik gabekoak.

Ildo horretan, Komiteak estatu alderdiei gomendatzen die aurre egin diezaiotela desgaitasuna duten emakumeek jasaten duten diskriminazio anizkoitzari, neurri hauek hartuz: lege, politika eta praktika diskriminatzaileak indargabetzea, eragozten dutenak desgaitasuna duten emakumeek Konbentzioan jaso ziren eskubide guztiak izatea; generoan eta desgaitasunean oinarritutako diskriminazioa eta diskriminazio-modu interseksionalak debekatzea; neskatila eta emakume desgaituen aurkako sexu-indarkeria delitu gisa tipifikatzea, eta behartutako esterilizazio-modu guztiak debekatzea.

Beraz, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa berretsi duten estatuak errespetatu, babestu eta eragingarri egin behar dute desgaitasuna duten pertsona guztiak berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko duten eskubidea. Ildo horretan, estatu alderdiek ezin dute egin desgaitasuna duten pertsonak diskriminatzen dituen inolako ekintzarik. Bereziki, aldatu edo indargabetu egin beharko dituzte pertsona horien aurkako bereizkeria dakarten legeak, erregelamenduak, ohiturak eta jardunbideak. Komiteak horren adibideak eman izan ditu askotan; adibidez, gaitasun juridikorako eskubidea urratzen duten babes-legeak eta beste arau batzuk; osasun mentaleko legeak, instituzionalizatzen eta tratamenduak hartzen behartzea legitimizatzen dutenak, diskriminatzaileak izanik indargabetu behar direnak; desgaitasuna duten emakumeen eta neskatilen esterilizazioa, haien baimenik gabe egina.

Adierazi behar da esterilizazio behartuaren praktika iritzi publikoak uste duen baino hedatuago dagoela. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, azken hamarkadan, behartutako mila esterilizazio baino gehiago egin dira Espainian, gehienak emakumeen artean. 2016an soilik, CERMIk, datu ofizialetan oinarrituta, adierazi zuen 140 kasu izan zirela, eta 865 kasu gehiago izan zirela 2005-2013ko aldian.

Era berean, nabarmentzekoa da Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzkoa (Istanbulgo Hitzarmena), 2014tik dagoela indarrean Espainian, eta 39. artikuluan berariaz debekatzen dituela esterilizazio behartuak.

Nazio Batuek, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Komitearen bidez, barne-antolamendua (Zigor Kodea) puntu horretan egokitzea gomendatu zion Espainiako Erresumari 2011. urtean, berme hori urra ez zedin.

Ondoz ondoko administrazioek ez dutenez ezer egiten, desgaitasuna duten emakumeen eta neskatilen eskubideen babesa hobetu behar denez eta desgaitasuna duten pertsonen oinarritzko eskubideak defendatu behar direnez, Espainian utzi egin behar zaio behartutako edo baimenik gabeko esterilizazioa egiteari.

Artikulu bakarra. *Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzea.*

Ezabatu egiten da Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 156. artikulua bigarren paragrafoa.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauak indargabetzea.*

Indargabetuta geratzen da Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarria.

Xedapen iragankor bakarra. *Abian diren prozedurak.*

Ondoriorik gabe geratuko dira Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera eta lege organiko hau indarrean jartzean izapidetzen ari diren edo izapidetuta egonda ere betearazi gabe dauden prozedurak, eta horien xede den pertsonak dagokion erabaki-askatasun osoa izango du tratamendu medikoa jasotzeko edo ez jasotzeko.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Lege arruntaren izaera duten xedapenak.*

Lege arruntaren izaera dute xedapen iragankor bakarrak eta azken xedapenetako hirugarrenak.

Azken xedapenetako bigarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da, artikulu horrek zigor arloko legeriaren gaineko eskumen eskusiboa esleitzen baitio Estatuari.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Araudia egokitzea.*

Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, aldatzeko hala 41/2002 Oinarritzko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen, nola 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa; hau da aldaketen xedea: batetik, bultzatzea giza laguntza eta laguntza materiala —teknologikoa barne— behar duten pertsona desgaituek formatu, kanal eta euskarri irisgarrietan eskura dezaten beharrezko duten informazio eta dokumentazio klinikoak, paziente gisa hartzen duten erabakia askea eta informatua izan

dadin, eta, bestetik, botere publikoek sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidea bermatzeko duten betebeharra indartzea.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,
Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2020ko abenduaren 16an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN